

## **Prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea aitortzea.**

### 1.- Mendekotasuna duten adinekoentzako egoitza-zerbitzua.

Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikorako eskubidea onartzea mendeko diren adinekoentzako foru egoitzen zerbitzuan plazaren onuradun-izaera onartzeko foru aginduaren edukietako bat izango da, hura arautzen duen araudian zehaztu bezala.

Prestazio ekonomikoari dagokion zenbatekoa kalkulatzeko, urtero onetsitako gehieneko zenbatekoak hartuko dira kontuan, prestazioak jaso ahal izateko graduak zehazteko, bai eta eguneko ahalmen ekonomikoa edo, hala badagokio, bizikidetz-unitatearen eguneroko per capita ahalmen ekonomikoa ere.

Ahalmen ekonomiko hori foru egoitzen zerbitzu publikoa emateagatik prezio publikoa aplikatzea erabaki eta hura arautu duen foru dekretuan aurreikusitako araei jarraiki zehaztuko da.

Prestazio ekonomikoaren hileko zenbatekoa kalkulatzeko, urte bakoitzerako aitortutako mendekotasun graduaren eta puntuen arabera izan dezakeen prestazio ekonomikoaren gehieneko zenbatekoari honako formularen ondorioz lortutako ehuneko aplikatuko zaio:  $\% = 100 - \{(hileko ahalmen ekonomikoa - unean uneko urteari eta bizikidetz-unitateko kide kopuruari dagokien diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbatekoa) * 0,00060\} * 100$ .

Bizikidetz-unitateko kideek per capita duten hileko ahalmen ekonomikoa zein den kalkulatzeko, honako formula hau erabiliko da: kideek per capita duten eguneko ahalmen ekonomikoa bider hirurehun eta hirurogeita bost (365) egun egin, eta eragiketa horren emaitza zati hamabi (12).

Prestazio ekonomikoaren eguneko zenbatekoa (eurotan) kalkulatzeko (€/egun), prestazioaren hileko zenbatekoa bider 12 egingo da, eta hori zati hirurehun eta hirurogeita bost (365) egingo da. Zenbateko hori (eurotan; €/egun) izango da, nolahi ere, dagozkion ordainketak egiteko zenbatekoak zehazteko kontuan hartuko dena.

Edonola ere, unean uneko urteari eta bizikidetz-unitateko kideen kopuruari dagokien diru-sarrerak bermatzeko zergaren zenbateko bereko edo gutxiagoko hileko ahalmen ekonomiko pertsonala duten erabiltzaileek zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren gehieneko zenbatekoaren gaineko eskubidea izango dute, eguneko euroak (€/euro) adierazita, aitortuta duten mendekotasunaren graduari eta puntuei dagokiena.

Era berean, onuradun batek ere ezingo du zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa jaso, aitortuta duen mendekotasun graduari eta puntuei dagokien gehieneko zenbatekoaren ehuneko berrogei (%40) baino gutxiagoko zenbatekoan (hori ere eguneko eurotan ezarrita).

Aitortutako prestazio ekonomikoak ezin du gainditu zerbitzuaren benetako kostua.

Bizikidetz-unitatea honakoek osatzen dutela ulertuko da: adinekoen foru egoitzen zerbitzu publikoa jasotzeko prezio publikoa arautu eta aplikatzea erabaki duen foru dekretuan ezarritako arauen arabera osatzen duten pertsonak.

Mendekotasuna duten adinekoentzako foru egoitzen zerbitzuan plazaren onuradun-izaera onartzeko foru aginduak, arautzeko foru araudiak ezarritakoaren arabera emanak, araudi horretan xedatutakoaz gainera, honako erabakiak ere jasoko ditu:

- Prestazio ekonomikoaren zenbatekoa (€/eguneko), unean uneko urteari dagokionez.

- Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa eskuratzeko eskubidea aitortu ahal izateko eguna, baldin eta behar bezala frogatzen bada, egun horretan, onuraduna, ordurako, egoitzako arreta edo zerbitzua jasotzen ari zela, dekretu honetan eta horrekin bat datozen xedapenetan ezarri den bezala.
- Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren onuradunak Gizarte Ekintza Sailari egoitza batean sartu deneko eguna jakinarazteko beharra, artikuluko honen 3 zenbakian jasotako baldintzen arabera, eskubidea erabili aurreko baldintza gisa.

Aipatutako foru aginduaren jakinarazpenak, era berean, dagozkion ordainketak eskatzeko modua aipatu beharko du, eskaera-eredu normalizatuari jarraiki; horrekin batera, ordainketa egiaztatze faktura edo agiri egokiak aurkeztu beharko dira.

Aurreko paragrafoan adierazitako fakturek Fakturazio betebeharrak arautu dituen apirilaren 6ko 57/2004 Foru Dekretuan ezarritako betekizunak jaso beharko dituzte.

Era berean, ordainketa egiaztatze faktura edo agiriek honako datuak jaso beharko dituzte:

- Egoitza-arretaren hasiera-data eta, hala badagokio, amaierakoa.
- Aurreko aldiko egunen kopurua.
- Zerbitzuaren unitateko prezioa: euroak/zerbitzu eguneko.
- Guztizko zenbatekoa.

Prestazioaren zenbatekoa justifikatzeko, onuradunak egoitza-prestazioaren ez bezalako zerbitzu osagarriak ordaintzea onartuko da.

## 2.- Mendekotasuna duten 60 urtetik beherako pertsonentzako egoitza-zerbitzua.

Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren gaineko eskubidea Gizarte Ekintzako diputatuaren foru agindu bidez aitortuko da.

Itxarote-zerrendan sartzeko foru aginduaren bidez onartutako prestazio ekonomikoaren zenbatekoa kalkulatzeko, urritasuna duten pertsonen arretarako foru egoitzen zerbitzu publikoko plaza baten onuradun izan beharraz, bizikidetz-unitatearen ahalmen ekonomikoaz eta unitateko kideen kopuruaz ezintasuna duten pertsonen arretarako zentroetako (Aldundiarenak, itunduak eta hitzartuak) prezio publikoei buruzko arautegian xedatutakoa aplikatuko da.

Prestazio ekonomikoaren onuradun diren pertsonen dagozkien diru kopuruak jasotzeko eskubidea izango dute foru egoitzen zerbitzuan plazaren onuradun-izaera onartzeko foru agindua eman eta hurrengo hilaren lehenengo egunetik aurrera, mendekotasuna duten 60 urtetik gorako pertsonak badira; edo eskaeraren egunetik aurrera, mendekotasuna duten 60 urtetik beherako pertsonentzako betekizunak betetzen badituzte.